| UDAL-KORPORAZIOAREN OSOKO BILKURAREN AKTA<br><br>2008/05/28 | LEGAZPIKO UDALA | ACTA DEL PLENO DE LA CORPORACION MUNICIPAL<br><br>28/05/2008 |
|---|---|---|

**Organoa edo Batzordea:** Osoko Bilkura.
**Bilera-mota:** ohikoa.
**Eguna:** 2008/05/28
**Ordua:** Hasiera: 19:30 eta bukaera: 20:00
**Tokia:** Legazpiko udaletxeko Batzar Aretoa.

**Bertaratuak:**
Sotero Plazaola Odriozola, Alkatea.
Mikel Alzelai Zulaika, atxiki gabeko zinegotzia.
Jon Erramun Uribeetxeberria Bidegain, atxiki gabeko zinegotzia.
Ane Urkiola Alustiza, EAJko zinegotzia.
Francisco Javier Iraeta Alvarez, EAJko zinegotzia
Juan Miguel Urrutia Castillon, EAJko zinegotzia.
Juan Ramon Larrañaga Mercero, EAko zinegotzia.
Mª Aranzazu Arizmendi Guereñu, EAko zinegotzia
Vicente Garmendia Martinez, EAko zinegotzia.
Iñaki Sanchez Gastañares, EB-Berdeak taldeko zinegotzia.
Ana Salinero Maestre, atxiki gabeko zinegotzia.
Oscar J. Luis Murillo Perez, PSE-EEeko zinegotzia
Jose Morcillo Guerrero, PSE-EEeko zinegotzia.
Fernando Arakama Fernandez, kontuhartzailea.
Jon Mikel Garagarza Roteta, idazkaria.

**Aztergaiak:**

**1. Bidezkoa bada, joan den 07/05/2008ko bilkurari dagokion akta onartzea.**

Aho batez onartu da.

**HIRGINTZA, OBRAK ETA ZERBITZUAK:**

**2. Bidezkoa bada, tasatutako udal etxebizitzak arautzeko udal ordenantza behin betiko onarpena.**
Alkateak hartu du hitza. Pasa den egunean egin zen Hirigintza Batzordean gai hau sakondu genuen eta bertan, bere garaian eman zen hasierako onarpenari aurkeztu zaizkion alegazio batzuk aztertu ziren. Alegazio horiek ordenantza idatzi zuen ekipoak aztertu ditu txosten bat idatziz. Bestalde, Idazkariak ere bere txostena idatzi du. Guzti hau kontuan izanik, Hirigintza Batzordeak honako irizpen hau aurkeztu du Osoko Bilkuran:

Jendaurrean agerian egoteko epean aurkeztu diren alegazioak aztertu ondoren eta gaiari buruz

**Organo o Comisión:** Pleno.
**Tipo de Convocatoria:** ordinaria.
**Día:** 28/05/2008
**Hora:** Comienzo: 19:30 y final: 20:00
**Lugar:** Salón de Plenos del Ayuntamiento de Legazpi.

**Asistentes:**
Sotero Plazaola Odriozola, Alcalde.
Mikel Alzelai Zulaika, concejal no adscrito
Jon Erramun Uribeetxeberria Bidegain, concejal no adscrito
Ane Urkiola Alustiza, concejal de PNV
Fco. Javier Iraeta Alvarez, concejal de PNV
Juan Miguel Urrutia Castillon, concejal de PNV
Juan Ramon Larrañaga Mercero, concejal de EA
Mª Aranzazu Arizmendi Guereñu, concejal de EA
Vicente Garmendia Martinez, concejal de EA
Iñaki Sanchez Gastañares, concejal de EB-BERDEAK
Ana Salinero Maestre, concejal no adscrita
Oscar J. Luis Murillo Perez, concejal de PSE-EE
Jose Morcillo Guerrero, concejal de PSE-EE
Fernando Arakama Fernández, interventor.
Jon Mikel Garagarza Roteta, secretario.

**Orden del Día:**

**1. Aprobación, si procede, del acta de la sesión del 07/05/2008.**

Se aprueba por unanimidad.

**URBANISMO, OBRAS Y SERVICIOS:**

**2. Aprobación definitiva, si procede, de la ordenanza municipal relativa a las viviendas municipales tasadas.**
Toma la palabra el Sr. Alcalde. El pasado lunes tratamos esta cuestión en la Comisión de Urbanismo. Se analizaron las alegaciones presentadas tras la aprobación inicial, alegaciones que han sido informadas por el equipo redactor de las Ordenanzas y por el secretario. Fruto de todo ello, la Comisión de Urbanismo presenta el siguiente dictamen al Pleno:

Tratadas las alegaciones presentadas en su periodo de exposición pública, así como el informe de los técnicos y jurídicos y discutidos



IFK: P-2005500-J • Euskal Herria plaza, 1 • Tel. 943 73 70 30 • Faxa 943 73 72 00 • 20230 LEGAZPI
www.legazpiko-udala.info- legazpi.le@legazpi.net

egin diren txosten tekniko eta juridikoak eztabaidatu eta gero, Hirigintza batzordeak ondoko proposamena egiten dio Osoko Bilkurari:

1.- PSE taldeak aurkeztu duen alegazioa onartzea eta ondoko aipamena kentzea: "Brinkolan eta Telleriarten aurreikusitako udal etxebizitza tasatuak bertako bizilagunen eta/edo bertan bizi direnen artean esleitzeko irizpide partikularrak".

2.- EB-Berdeak taldeak aurkeztu duen alegazioaren zati bat onartzea, ondoko puntuei dagokienez:

.- "Tasatutako babes ofizialeko etxebizitza" kontzeptua aldatzea eta honakoa ezartzea: "Tasatutako errejimen autonomikoaren babes ofizialeko etxebizitza".

.- Araubide orokorreko udal etxebizitza tasatuak sustapen pribatuaren bidez saltzeko aplikatuko den gehienezko prezioaren indizea aldatzea eta aplikatuko den indizea "2" izatea.

.- Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzat etxebizitzaren arloko ekintza positiboko neurriei buruz Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuak joan den 2006ko urriaren 4an onartu zuen Aginduan ezarritakoaren arabera, ez zaizkie gutxieneko diru-sarrerak eskatuko genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei; hala ere, Legazpin bizi diren emakumeak izango direla zehaztuko da.

.- 2. puntuko 8. artikuluaren idazketa aldatzea eta eraikitzeko lizentzia emateak ezin duela lizentzia-eskaerarekin bat egin azaltzea.

.- 8.5.B.d artikuluaren ondoko aipamena kentzea: "aplikatzea egoki deritzen beste irizpide batzuekin bat etorriz".

.- 9.2. artikuluaren idazketa aldatzea eta honela jartzea: "Udal etxebizitza tasatuen onuradun guztiek, onuradunari lotutako bizikidetza unitateko kide guztiak barne, beste etxebizitzarik eduki ez izanaren baldintza bete beharko dute, dela jabetzan −osoa nahiz azalerakoa−, dela jabetza soilean edo gozamen-eskubidean, eta hori guztia etxebizitza premia arautzen duten eta

cada uno de los apartados que los componen la Comisión de Urbanismo acuerda proponer al Pleno:

1.- Estimar la alegación presentada por PSE, en el sentido de eliminar la referencia a los "Criterios particulares para la adjudicación preferente de viviendas tasadas municipales previstas en los núcleos de Brinkola y Telleriarte entre los vecinos y/o residentes en los mismos."

2.- Estimar parcialmente la alegación presentada por EB-Berdeak en los siguientes puntos:

.- Modificar el concepto de "vivienda de protección oficial tasada" por el de "vivienda de protección oficial de régimen tasado autonómico".

.- Modificar el índice a aplicar el precio máximo de venta de las VTMRG de promoción privada estableciéndolo en "2".

.- No se exigirá el cumplimiento del requisito de ingresos mínimos a aquellas mujeres que acrediten la condición de víctimas de violencia de género, tal y como se exige en la Orden de 4 de octubre de 2006 del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales sobre medidas de acción positiva en materia de vivienda para mujeres víctimas de la violencia de género, especificándose que deben ser residentes en Legazpi.

.- Mejorar la redacción del artículo 8 del punto 2 en el sentido de que la concesión de la licencia de edificación no puede ser simultánea a su solicitud.

.- Eliminar la referencia del artículo 8.5.B.d a otros criterios cuya aplicación al caso se estime adecuada.

.- Modificar la redacción del artículo 9.2 de la siguiente manera: "La totalidad de los beneficiarios de las viviendas tasadas municipales, incluida la totalidad de los miembros de la unidad convivencial vinculada al beneficiario, deberán cumplir el requisito de no disponer de otra vivienda, bien en propiedad, plena o superficiaria, nuda propiedad o derecho



IFK: P-2005500-J • Euskal Herria plaza, 1 • Tel. 943 73 70 30 • Faxa 943 73 72 00 • 20230 LEGAZPI
www.legazpiko-udala.info- legazpi.le@legazpi.net

indarrean dauden lege xedapenetan ezarritako salbuespen guztiekin".

de usufructo, en los términos y con las salvedades establecidas en las disposiciones legales vigentes reguladoras de la necesidad de vivienda".

.- 9.2. artikuluaren 2. lerraldia kentzea: "Xedapen horietan aurreikusitako gainerako kasuetan bezala,…"

.- Eliminar el párrafo 2 del artículo 9.2 "Además de en los restantes…."

.- 9.5.A artikulua aldatzea, Udalari interesatuko zaionean, etxebizitzak esleitzeko prozedurak egitean Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailarekin hitzarmenak sinatzeko aukera eduki ahal izateko, Udalari horrela egitea interesatuko zaionean.

.- Modificar el artículo 9.5.A, con el fin de posibilitar al Ayuntamiento el llevar a cabo convenios con el Departamento de Vivienda del Gobierno Vasco a la hora de realizar los procedimientos de adjudicación cuando así le interese al Ayuntamiento.

.- Ondoko aipamena kentzea: "Brinkolan eta Telleriarten aurreikusitako udal etxebizitza tasatuak bertako bizilagunen eta/edo bertan bizi direnen artean esleitzeko irizpide partikularrak".

.- Eliminar la referencia a los "Criterios particulares para la adjudicación preferente de viviendas tasadas municipales previstas en los núcleos de Brinkola y Telleriarte entre los vecinos y/o residentes en los mismos."

.- Etxebizitzak esleitzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko beharrezkoak izango diren ikuskapenak eta egiaztapenak egiteko Udalari eskumena ematea. Modu berean, Eusko Jaurlaritzari ikuskatzeko, zigorrak ezartzeko eta desjabetzeko eskumenak ematea, horretarako Administrazio biek adostuko dituzten terminoetan dagokion hitzarmena sinatuz.

.- Facultar al Ayuntamiento para llevar a cabo cuantas actuaciones de comprobación e inspección fuesen necesarias para acreditar el cumplimiento de los requisitos de la adjudicación de viviendas. También plantear el ejercicio de las facultades de inspección, sanción y expropiación al Gobierno Vasco, mediante la suscripción de convenio, en los términos que ambas Administraciones acuerden.

.- Babes Ofizialeko Etxebizitzen irizpideak mantentzea.

.- Mantener el criterio de las VPO.

EB-Berdeak taldeak aurkeztu dituen gainerako alegazioak ez onartzea.

Desestimar el resto de las alegaciones de EB-Berdeak.

3.- EA taldeak aurkeztu dituen alegazioak ez onartzea.

3.- Desestimar la alegación presentada por EA.

4.- Onartu diren alegazioak jasoko dituen testu bategina idaztea eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara ematea.

4.- Redactar un documento refundido que recoja las alegaciones estimadas, publicando el mismo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Segidan Jose Morcillo jaunak hartu du hita eta aldeko botoa emango duela jakinarazi du, aurkeztu duten alegazioa onartu egin delako.

Toma la palabra José Morcillo para anunciar que votarán a favor, ya que se ha estimado la alegación que presentaron.

Modu berean, Juan Ramon Larrañaga jaunak bere taldeak ere aldeko botoa emango duela adierazi du. Beraien helburua etxebizitzaren prezioa murriztea izan da eta gehienezko

Así mismo, Juan Ramón Larrañaga también anuncia que su grupo votará a favor, su objetivo ha sido la reducción del precio de la vivienda y el hecho de que el índice "2" sea un máximo ayuda



IFK: P-2005500-J • Euskal Herria plaza, 1 • Tel. 943 73 70 30 • Faxa 943 73 72 00 • 20230 LEGAZPI
www.legazpiko-udala.info- legazpi.le@legazpi.net

indizea “2” izatea helburu hori lortzea ahalbidetzen du.

Bertaratutakoek aho batez erabaki dute aurkeztu den irizpena onartzea.

**3. Bidezkoa bada, mugikortasunerako plana hasiera batean onartzea.**
Gai hau azkeneko Hirigintza Batzordean azaldu zen. Laburbilduz, orain arte mugikortasun Planaren aurrerakina idatzi da. Aipatu dokumentua jendaurrean agerian egoteko epean hainbat iradokizun jaso dira eta horiek aintzat hartu ondoren, onartzeko aurkeztu den dokumentua idatzi da.

Halaber, gaurko saioan Planaren azterketa ekonomkioa aurkeztu da, 8.210.560 eurokoa.

Laburtuz, mugikortasun iraunkorreko plana ondoko printzipioetan oinarritzen da:

* Trafikoa antolatzea.

* Aparkalekuak

* Oinezkoentzako eremuak eta ibilbideak

* Bidegorriak

* Garraio publikoa

Batzordeak ondoko irizpena onartu zuen:

Planaren edukia aztertu eta berau osatzen duten atal bakoitza eztabaidatu ondoren, Hirigintza Batzordeak ondoko proposamena egiten dio Osoko Bilkurari:

1.- Legazpiko udalerriko Mugikortasun Iraunkorreko Plana hasiera batean onar dadila, ondorengo baldintzekin:

.- Planaren balorazioaren 1.F atalaren izena aldatzea eta honela agertzea: “San Martin auzotik Juanastegi kalera doan jaitsiera”.

.- Planaren balorazioan erantsitako balorazio-taula gehitzean.

2.- Iragarkia jendaurrean agerian jarriko da Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita 30

a avanzar en el sentido apuntado.

Por unanimidad de los presentes se acuerda aprobar el dictamen presentado.

**3. Aprobación inicial, si procede, del Plan de Movilidad.**
Toma la palabra el Alcalde. Este tema se trató en la pasada Comisión Urbanismo. Se ha redactado un avance del Plan de Movilidad de municipio, en el plazo de exposición pública se presentaron algunas sugerencias y una vez tenidas en cuenta éstas, se ha redactado un documento para su aprobación.

Ya se ha incorporado el estudio económico que asciende a 8.210.560 euros.

En resumen, el plan de movilidad sostenible se basa en los siguientes principios:

* La ordenación del tráfico

* El estacionamiento

* Los espacios y los itinerarios peatonales

* Las vías ciclistas

* El transporte público

La Comisión aprobó el siguiente dictamen:

Tratado el contenido formal del plan y discutidos cada uno de los apartados que componen la misma, la Comisión de Urbanismo acuerda proponer al Pleno:

1.- La aprobación inicial del Plan de Movilidad Sostenible del municipio de Legazpi, con las siguientes condiciones:

.- Modificar la denominación del apartado 1.F de la valoración del plan pasando a denominarse “bajada de San Martín auzoa a Juanastegi kalea”.

.- Añadir en la valoración del plan la tabla de valoración adjunta.

2.- Se somete a información pública por un periodo de 30 días hábiles contados a partir del siguiente hábil al de la inserción de este anuncio



IFK: P-2005500-J • Euskal Herria plaza, 1 • Tel. 943 73 70 30 • Faxa 943 73 72 00 • 20230 LEGAZPI
www.legazpiko-udala.info- legazpi.le@legazpi.net

laneguneko epean. Epe horretan nahi adina erreklamazio eta alegazio aurkeztu ahal izango dira.

3.- Aipatu epe horretan erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, hasieran onartutakoa behin betiko onartuta geratzen dela ulertuko da eta, beraz, Udalbatzak ez du horren gainean erabaki berri bat hartu beharrik izango.

Segidan, Jose Morciollo jaunak hartu du hitza eta bere taldeak aldeko botoa emango duela esan du, oraingoan plana bere azterketa ekonomikoarekin aurkeztu delako. Ez diote Planari ekarpenik egingo.

Jarraian, Juan Ramon Larrañaga jaunak hartu du hitza eta bere taldeak ere aldeko botoa emango duela esan du. Txosten ekonomikoaren beharra defendatu izan dute beti. Bestetik, plana beharrezkoa dela eta jendaurrean egoteko epean aldaketak emango direla uste du.

Bertaratutakoek aho batez erabaki dute aurkeztu den irizpena onartzea.

**OGASUNA**

**4. Erainkuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergarn Haztegi Ikastolari hobaria.**

Gai honek Ogasun Batzordearen aldeko irizpena dauka eta dagokion tasaren %95eko hobaria ematea proposatu da. Santikutz kaleko eraikineko teilatua konpontzeari dagokion tasa da.

Bertaratutakoek aho batez erabaki dute aurkeztu den irizpena onartzea.

**5. Erainkuntza, Instalazio eta Obren gaineko zergan San Juan Elizako Batzordeari hobaria.**

Gai honek Ogasun Batzordearen aldeko irizpena dauka; kasu honetan ere dagokion tasaren %95eko hobaria ematea proposatu da. San Juan baselizan egindako obrei dagokien tasa da.

Bertaratutakoek aho batez erabaki dute aurkeztu den irizpena onartzea.

en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa, a fin de que puedan presentarse las reclamaciones y alegaciones que se estimen oportunas.

3.- En el caso de que en el plazo señalado no se presente ninguna reclamación o sugerencia, se entenderá definitivamente adoptado el acuerdo hasta entonces inicial, sin que por el Ayuntamiento Pleno deba adoptarse al efecto un nuevo acuerdo expreso.

Toma la palabra José Morcillo, anuncia el voto favorable de su grupo, toda vez que el plan ya se presenta con un estudio económico. No realizar alguna aportación al Plan.

Toma la palabra Juan Ramón Larrañaga. Su grupo votará a favor. Siempre han defendido la necesidad de la memoria económica, ven que el Plan es necesario y estima que durante el plazo de exposición pública sufrirá modificaciones.

Por unanimidad de los presentes se acuerda aprobar el dictamen presentado.

**HACIENDA**

**4. Bonificación Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras a Haztegi Ikastola.**

Este tema cuenta com dictamen favorable de la Comisión de Hacienda, se propone uma bonificación del 95% de la tasa generada por el arreglo de la tejavana del local de la Ikastola en Santikutz.

Por unanimidad de los presentes se acuerda aprobar el dictamen presentado.

**5. Bonificación Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras a San Juan Elizako Batzordea.**

Este tema cuenta com dictamen favorable de la Comisión de Hacienda, se propone uma bonificación del 95% de la tasa generada por obras en la ermita de San Juan.

Por unanimidad de los presentes se acuerda aprobar el dictamen presentado



IFK: P-2005500-J • Euskal Herria plaza, 1 • Tel. 943 73 70 30 • Faxa 943 73 72 00 • 20230 LEGAZPI
www.legazpiko-udala.info- legazpi.le@legazpi.net

**AGENDA 21**

**6. Papera erosteko araudia**
Segidan, Erramun Uribeetxeberria zinegotziak hartu du hitza. Legazpiko udaletxeak, agenda 21eko filosofia jarraituz eta ingurumenaren baitan, irizpide ekologikoak kontuan hartuko dituen erosketa publikoko politika sustatzea jarri zuen helburu.

Dakizuenez, Ekoskan ziurtagiriarekin ari gara lanean eta jarri ziguten helburuetako bat paper zuriaren erabilpenaren murrizketa izan zen. Gaur egun, paper birziklatuarekin soilik egiten dugu lan eta paperaren erabilera %21 murriztu zen.

Udaletxeak bere partez, kanpoko argitalpenekin arazotxoak daudela ikusiz, urrats bat aurrera egin nahi du guzti hori arautuz.

Horretarako, Legazpiko udaletxean eta bere erakunde autonomoetan papera eta deribatuak erosteko jarraibideak ezarri ditu.

Bertan, irizpide zehatzak ezartzen dira eta bete beharreko ingurumen baldintzak. Baita ere, paperaren erabilpena murrizteko gomendio eta jokabideak eskaintzen dira. Legazpiko Udalarekin lan egiten duten erakundeei ere gonbitea luzatuko zaie irizpide hauen barne lan egin dezaten.

Irizpena irakurri eta gero bertaratutakoek aho batez erabaki dute aurkeztu den irizpena onartzea.

**ALKATETZA:**

**7. Luzatu diren dekretuen berri ematea.**
Dagoeneko banatu dira luzatu diren dekretuen zerrenda.

**MOCIÓN**

**8. Moción presentada por Erramun Uribeetxeberria.**
Erramun Uribeetxeberria ziengotziak mozioa irakurri du. Mozioa aktari erantski zaio.

**AGENDA 21**

**6.Normativa para compra de papel.**
Toma la palabra Erramun Uribeetxeberria. El Ayuntamiento de Legazpi, siguiendo la filosofía de agenda 21 y en aras a la sostenibilidad, se ha propuesto promover una política de compras publicas que introduzca criterios ecológicos.

Como sabéis, trabajamos con la acreditación de Ekoskan y uno de los objetivos que nos puso como meta fue la reducción de papel blanco. Hoy por hoy, solo se trabaja con papel reciclado y el uso de papel ha disminuido en un 21%.

El Ayuntamiento por su parte, viendo que tenemos ciertos problemas con las publicaciones externas y con las imprentas, ha decidido dar un paso adelante y regular todo ello con una ordenanza.

Para ello, se ha sacado una instrucción para la compra de papel y sus derivados en el ayuntamiento de Legazpi y sus organismos autónomos.

En la misma, se detallan las directrices y los requisitos medioambientales de obligado cumplimiento. Asimismo, se instruye y se dan una serie de recomendaciones para la reducción del uso del papel. Las asociaciones que trabajen con el ayuntamiento de Legazpi recibirán una invitación por parte del mismo para que trabajen conforme a esta ordenanza.

Tras la lectura del dictamen, por unanimidad de los presentes se acuerda aprobar el dictamen presentado.

**ALCALDIA:**

**7. Dar cuenta de los decretos dictados.**
Ya se ha repartido la lista de los decretos dictados.

**MOZIOA:**

**8. Erramun Uribeetxeberriak aurkeztutako mozioa**
Erramun Uribeetxeberria da lectura a la moción, incorporándose como anexo al acta.



IFK: P-2005500-J • Euskal Herria plaza, 1 • Tel. 943 73 70 30 • Faxa 943 73 72 00 • 20230 LEGAZPI
www.legazpiko-udala.info- legazpi.le@legazpi.net

Segidan, Juan Ramon Larrañaga jaunak hartu du hitza. Bozeramaileen batzordean ez zela mozio honen berri eman esan du; ez da gure araudia bete eta, modu berean, joan den urtarrilaren 31n idazkariak egin zuen txostena ekarri du gogora. Mozioa bozeramaileen batzordean aztertu behar zela esan du.

Jarraian, idazkariak hartu du hitza eta urtarrilaren 31ko txostena du hizpide. Mozioak maiatzaren 22ko data du eta bozeramaileen batzordea 21ean egin zen, beraz arrazoi du Larrañaga jaunak. Hala ere, presa alegatuz mozioa aztertuko dela onar daitekeela dio.

Alkate jaunak, dauden legezko arazoak ikusita, mozioa hurrengo bilkuran aztertuko dela erabaki du.

**9. Eskariak eta galderak.**

Segidan, Juan Ramon Larrañaga jaunak hartu du hitza. Aurreko legealdian bakearen aldeko Foro bat eratu zen eta bertako kide batek Konpondu ekimeneko dinamizaio-taldeko kide den Aitziber B. Goikoetxeak sinatu duen eskutitza eman diola esan du. Aipatu idatzian emaitzen txosten bat aurkezteko eta foroaren esperientzia berri bat martxan jartzeko Udalarekin harremanetan jarri zela eta Alkateak ekimen horrekiko interesik ez duela azaldu eta horretarako baliabiderik jarriko ez dituela jasotzen da. Horren aurrean, Konpondu ekimenekoak Alkatearekin harremanetan jarri diren eta Udalaren jarrera zein den galdetu du.

Jarraian alkate jaunak hartu du hitza. Ez du horren berririk; berak ez duela ezer jaso eta gai horri buruz ez duela inorekin hitz egin zehaztu du.

Larrañaga jaunak Osoko Bilkurako gehiengoak azken atentatua gaitzetsiz EUDELek egin duen adierazpenarekin bat egiten duela esan nahi du.

Erramun Uribeetxeberria zinegotziak EUDELen oharra jaso zenean, iragarki-taulan jarri zela jakinarazi du.

Toma la palabra Juan Ramón Larrañaga. En Junta de portavoces no se dio cuenta de esta moción, no se da cumplimiento a nuestra normativa y así mismo se remite a un informe del secretario fechado el 31 de enero. Insiste en que la moción debió de pasarse por la Junta de Portavoces.

Toma la palabra el Secretario. Se remite a su informe de 31 de enero. La moción está fechada el 22 de mayo y la Junta se celebró el 21 del mismo mes, por lo que el Sr. Larrañaga tiene razón. No obstante, entiende que por la vía de urgencia puede aprobarse el tratar la moción.

Toma la palabra el Alcalde, ante los problemas legales existentes opta por tratar la moción en la siguiente sesión.

**9. Ruegos y preguntas.**

Toma la palabra Juan Ramón Larrañaga. Hay un Foro por la paz que se formó la legislatura pasada, un miembro de dicho foro, me ha traido un escrito firmado por Aitziber B. Goikoetxea, que es del equipo dinamizador de la iniciativa konpondu. En dicho escrito se dice que se puso en contacto con el Ayuntamiento para presentar el informe de conclusiones y poner en marcha una nueva experiencia del foro, el Alcalde nos hizo saber que no tenía ningún interés en la inciativa y que no iba facilitar ningún recurso para ello. Pregunta por la postura del Ayuntamiento, si la iniciativa Konpondu se ha puesto en contacto con el Alcalde.

Toma la palabra el Alcalde. No tiene constancia de que se le mandara nada y no ha hablado con nadie respecto a ese asunto, nadie se ha puesto en contacto con él.

El Sr. Larrañaga quiere hacer constar que la mayoria de este Pleno se suma a la condena de EUDEL por el último atentado.

Contesta Erramun Uribeetxeberria que cuando llegó la nota de EUDEL se expuso en el correspondiente tablón.



IFK: P-2005500-J • Euskal Herria plaza, 1 • Tel. 943 73 70 30 • Faxa 943 73 72 00 • 20230 LEGAZPI
www.legazpiko-udala.info- legazpi.le@legazpi.net

Alkateak, arratsaldeko 20:00 direnean, amaitutzat eman du bilkura eta aztertu den guztia eta hartutako akordioak jasota gera daitezen akta hau egin dut eta nik, idazkariak, bertan jasotakoaren fede ematen dut.

El alcalde levanta la sesión, siendo las 20 horas y 00 minutos, y para constancia de lo que se ha tratado y de los acuerdos adoptados, extiendo la presente acta de todo lo cual, yo, el secretario, doy fe.

| | |
|---|---|
| Akta hau 2008/06/25(e)an egindako bileran onartu zen:<br><br>☐ bere osotasunean, inolako aldaketarik gabe.<br><br>☐ baina egun honetako bileraren aktan jasotzen dira egin ziren aldaketak. | Este acta fue aprobada en la sesión del día 25/6/2008:<br><br>☐ en su integridad, sin ninguna objeción.<br><br>☐ si bien en el acta de la sesión de dicho día se recogen las objeciones registradas. |
| Jon Mikel Garagarza Roteta<br>Idazkaria | Sotero Plazaola Odriozola<br>Alkatea |



IFK: P-2005500-J • Euskal Herria plaza, 1 • Tel. 943 73 70 30 • Faxa 943 73 72 00 • 20230 LEGAZPI
www.legazpiko-udala.info- legazpi.le@legazpi.net